

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Bularraren mehatxua

Buruan daukat oraindik Carolina Bescansaren afera. Badakizue, Espainiako Legebiltzarrean bere bost hilabeteko umearekin agertu zenean eta bertan bularra eman zionean. Iritzi kontrajarriak entzun genituen orduan, nire harridura eta haserterako gehienak kontrakoak. Batzuek “postureo” hitza erabili zuten, Legebiltzarrean haurtzaindegia egonda zergatik ez erabili zerbitzu hori? Beste batzuek, berriz, jarrera matxistatzat hartu zuten, “non dago bere aita? Zergatik ez utzi berarekin?”. Haurraren beharrei lehenetasuna ematen badiegu galdera horiek erraz erantzunen nituzke; haurrak bost hilabete besterik ez dituelako eta Osasunaren Mundu Erakundearen arabera lehen sei hilabeteetan umeek bularra besterik ez dutelako hartu behar, gutxienez bi urtera arte gomendagarria izanik. Haurrek ez dituzte haurtzaindegiak behar, beraien aita-amak gertu egotea baizik, eta lehenengo hilabeteetan ama gertu egotea behar dute bereziki. Hamasei aste baino ez dizkigute ematen gure umeak zaintzeko. Bere ume txikia haurtzaindegibatean utzi behar izan duenak ongi daki hori ez dela nahikoa.

Baina gure gaurko gizartearen bularra ematea ez da erraza. Berrirori ere Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioak hartuko ditugu: ia emakume guztiak bularra emateko gai dira, baldin eta informazio egokia, familiaren eta osasun zerbitzuen babesa jasotzen badute. Baina gomendio horiei nik beste batzuk gehituko nizkieke: amak denbora edukitzea, gizartearen onespina jasotzea eta Estatuaren babesa izatea. Hau da, behingoz familia eta lana uztartzeko behar bezalako politikak martxan jartzea. Horrela umearen eskubideak bermatuko genituzke eta behar duen elikadura jasoko luke, bai kalitate aldetik baita denbora aldetik ere.

Baina, honaino irakurri duenak esan dezake, “eta emakumearen eskubideak non gelditzen dira?”. Bularra ematea emakumearen askapenerako mehatxutzat hartu izan da, bularra emateak eta zaintzak menpekotasunean uzten omen gaituelako. Horrela adierazi zuen bere garaian Simone de Beauvoir-ek: «Edoskitzeak emakumea morroi bihurtzen du». Horretarako jaio omen zen biberioia, emakumea askatzeko, ez noski kapitalismoaren mesederako –emakumeak lan merkatuaren beharretara egoteko askatu gintuen–, ezta farmazeutikak aberasteko ere. Ironia alde batera utziz, diskurtsoa ondorengo litzateke:

1. Bularra emateak haurra eta amaren arteko menpekotasuna dakar.
2. Zaintzaren menpekotasuna historikoki emakumearen askapenaren borrokarentzat kaltegarria izan da.
3. Beraz, bularra emateak emakumearentzat menpekotasuna dakar.

Baina ni, kasu honetan, ezberdintasunaren feminismoaren ikuspuntuarekin bat nator:

1. Zaintza, tradizionala, emakumeen eskuetan egon izan denez gutxietsia izan da.
2. Zaintzaren aldarrikapenak feminismoaren helburua izan behar du.
3. Beraz, bularra ematea bezalako ekintzak feministak ere izan daitezke, eta, dudarik gabe, ekintza politikoak dira.

Bularra ematea eremu pribatutik publikora eramane behar dugu, eta ez alderantziz. Horregatik iruditzen zait Bescansak

Bularra ematea eremu pribatutik publikora eramane behar dugu, eta ez alderantziz. Horregatik iruditzen zait Bescansak Madrileko Legebiltzarrean egin zuena ekintza politiko bat izan zela

cansak egin zuena ekintza politiko bat izan zela. Are gehiago, pentsa dezagun zer gertatuko litzatekeen bularra ematea gizonen eskuetan egon izan balitz. Dagoeneko honen inguruko legislazioa izanen genuke, zaintza babestuta, onartuta eta goraipatuta egonen litzateke. Beno, agian ez, ze bularra ematea dohainik da, hots, kapitalismoarentzat sekulako mehatxua da! Biberioirik ez, dirurik ez lagunok.

Medikuntzaren ikuspuntutik umearentzat eta amarentzat horren mesedegarria izanda bularra ematea gizarte osoarentzat mesedegarria dela ulertarazi behar dugu. Hala eta guztiz ere, bularra edo biberioia ematea emakumeok libreki egin beharko genukeen aukera izan beharko litzateke, bakoitzak praktikatu nahi duen amatasunaren arabera. Noski, aukera hori ez da horren libreza eragozpen politiko, ekonomikoak eta sozialak ikusita. •

«Gero eta urrunago sentitzen naiz euskal progresista batek pentsatu behar duenetik»

Ez da ahaztekoa 1991ko Gipuzkoako Txapelketan, kartzelako azken bertsoan, nola tongo egin zuen txapelik ez janzteko. Hamabost urte zituela hiru txapel segidan jantzi zituen eta bazekien ospea edo banitatea edo fama droga arriskugarria zela. Bere atrebentzia horrek harrabots handia eragin zuen bertsozaleen artean. Horietako batek biharamunean etxera deitu omen zion animoak emateko. Aitak hartu zuen telefonoa. «Pilotan jokatzera joan duk. Horretan bai, gустatzen zaiok irabaztea», esan omen zion.

Ez da izaera kontua. Jon Sarasua lehia zalea da, apustu zalea ere tarteka, baina izua eragin diezaioke ospe gehiegizkoak. Bi urte geroago Euskal Herriko Txapelketa zetorren. Izena eman zuen, baina El Salvador eta Guatemalara alde egin zuen, garaiz etorriko zela esanda. Gertukoenek bazekiten ez zela txapelketara etorriko. Berak handik eta txapela irabazi berria zuen Andoni Egañak Zarauztik elkarri gutunak trukatzuz osatu zuten “Zozoak beleari”, euskal literaturako liburu ederren zerrendan sartu beharreko bat. Ordurako hasita zegoen kooperatibagintzaz (autoeraketa) eta hizkuntza gutxituen biziberritzea prozesuei buruz ikertzen.

Hiruzpalau liburu argitaratu ditu bi arlo horien inguruan. Azkenengoa, “Bost truke” izenekoia izan da. Urtebeteko epean Kolonbian, Bolivian, Kurdistanen, Ekuadorren eta Serbian egindako egonaldien kronika pertsonala egiten du bertan Jon Sarasuak. Ebakuntza bat egiteko egun gutxi batzuk falta zaizkionean hartu gintuen Mondragon Unibertsitateko Huhezi Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, Aretxabaletan. Euripean, bizikletan iritsi zen hitzordura.

JON SARASUA

«BOST TRUKE» LIBURUAREN EGILEA

Aktibista, ikerlaria eta idazlea. Orain hogeita hiru urte bertsolaritzaz hitz egiten zuenean txunditu egiten zituen bertsozaleak bere analisi-gaitasunagatik eta bere ahotsak distira berezia zuelako. Hizkuntzaren eta autoeraketaren inguruan hiruzpalau liburu utzi ditu geroztik eta milaka hitzaldi emango zituen munduan barrena, eta lilura bertsua eragiten segitzen du.

joxean.agirre@gaur8.info

Zure profila egitean zailak bat sortzen da: noiz utzi zenuen bertsolaritza eta hasi zinen hizkuntzaren eta autoeraketaren inguruan lanean?

2000. urtean utzi nuen bertsolaritza ebakuntza bat tarteko. Eta ordurako urteak neramatzan hizkuntzaren nahiz autoeraketaren arloan lanean. Nire ezaugarri edo akatsa esango nuke arlo askorekiko interesa dela. Betidanik izan dut halako gogo errenazentista bat. Oraindik ere gai batekin erabat emozionatzen naiz eta gai horretan burubelarri sartzen naizenean mugakoak edo urrutikoak diren beste hainbat arlotan sartu ohi naiz. Ikuspuntu bital batetik begiratuta ere berdin, bertsoa interesatzen zait, baina interesatzen zait aktibismoa ere edo akademia bera... gauza gehiegi ezer ondo egiteko. Kanpotik ere oso mezu ezberdinak iristen zaizkit: batzuek diote analisi-gaitasun handia dudala eta beste batzuek lider izateko ezpala dudala eta taldeak eramaten naizela ona, edota beste batzuek idazteko baliotik dudala eta horretara dedikatu beharko nukeela. Uste dut denetik pixka bat egiteko jaio nintzela, baina inoiz garbi ikusi gabe nire lekua zein den.

Gatozen liburura. Urtebetean bost irteera edo egonaldi egin dituzu atzerrian eta horien kronika pertsonala bildu duzu. Has gaitezen geografikoki gertuen zaigunetik: iazko apirilean Serbian izan zinen euskal kooperatibez duzun ikuspegia agertzen. Eztabaida ideologikorako bidea ematen duten gaiak aipatzen dituzu. Herrialde europarra izateak ere antzekotasunak gehitzen ditu.

Bai, hala da. Europartasunarekin orain ari naiz adiskidetzen. Gure elite politikoa beti egon da Europara begira eta gure kulturarentzat ere Europa izan da erdua eta nire jarrera gehiago izan da hegoaldera ere begiratzekoa. Baina hegoaldean ibili izanak uste dut ekarri nauela berriro europartasunaren kontzientzia sumatzera. Brasilgo kooperatibak aztertzen hasi eta dituzten arazoei begira ohartu

izan naiz Europako baserritar kulturaren aztarnak daudela han. Nik Europako baserritar kulturaren jenioa Brasilen hasi nintzen miresten, hango Lurrik Gabekoen Mugimenduan (MST). Serbiara itzuliz, Zrenjanin hirian izan nintzen apirilean, enpresak zeharo lur jota eta langile multzo handi bat langabezia dagoen eskualdean. Ezker mugimendua nahikoa abaildua dago, baina talde bat hasi da errautsak astintzen eta nazioarteko batzar bat eratu zuten. Hor izan nintzen nire ingeles baldarrarekin euskal kooperatibismoaz hitz egiten. Hamabost urte daramatzat harritzen eta oraindik ez naiz ohitzen Arrasateko kooperatibagintzak munduan duen ospe horretara.

Titoren sistema politikoaz, sozialismoa ordezkatu duen sentipen etnikoaz, nazismoaz, sozialismo erreala egin dituen sarraskiez, abertzaletasunaz eta ideologiaren ari zara eta azken gai horren inguruan esaldi borobil hau botatzen duzu: «Nire ustez, joan diren mendeetako ideologia modernoetatik puskak bakarrik hartu behar ditugu». Ez al da hori jarrera guztiz eklektikoa?

Halako ibilbide edo erromesaldi ideologiko bat egiten ari naizela sentitzen dut, beste asko bezala, noski, eta nire muga guztiekin, hanka bat beti aktibismoan eta bestea akademian dudala. Baina zenbat eta gehiago sakondu ideologietan eta tokatzen zait, gai horien irakaslea naizelako unibertsitatean, gero eta gehiago biderkatzen zaizkit ideiak eta galdera berriak sortzen ari zaizkit, eta, ez dakit eklektizismoa den, baina zenbat eta nire erromesaldi xelebre honetan aurrerago joan, gero eta urrunago sentitzen naiz hemen pentsatu behar denetik, euskal progresista batek pentsatu behar duenetik, edo hegemoniakoak diren jarreretatik. Eta hori sentitzea, egia esan, ez da oso atsegina. Liberalismoak gauza jenialak ditu, Marxek ere ezinbesteko ekarpenak egin zituen, baina aldi berean anarkismoak eskaintzen duen ikuspegia ere beharrezkoa

zaigu eta kontserbadurismo in-gelesaren hitz handietan oina-rritutako abstrakzio ideologiko-ak ere aberasgarriak zaizkit. Hori ideologia modernoak baka-rrik aipatzeko. Iruditzen zait beste iturri batzuk ere landu be-har ditugula, gaur egun galdera larriak ditugulako, bioetikan edo teknologietan esate batera-ko. Uste dut indagatu egin behar dugula eta nor bere kabuz pen-tsatzeko ikasi.

Euskal ezkerrean eztabaida gu-txi ikusten duzu?

Eztabaida intelektual interesga-rririk ez dut sumatzen. Orain hamabost egun egon nintzen Brasilen eta eztabaida askoz ere sakonagoak dituzte abian, edo baita Serbian bertan ere batza-rra antolatu zuten artean. He-men kontrola sentitzen dut eta gai batzuen inguruan “rodilloa” nola pasatzen duten, generoa-ren gaian esate baterako, eta di-sonantea naizen bakoitzean ohartzen naiz zer-nolako pre-sioa dagoen, sekulako zaparra-dak erortzen zaizkizulako. Niri probokazioa ez zait interesa-tzen, baina zalantza batzuk di-tut eta zalantza horiek agertze-ko pausotxo eman dudanean egurra ematen dute. Hezkuntza-ri buruz, bioetikaz, zaintza ere-duen inguruan kontu handiz hitz egin behar da hemen. Gero, gezurra ere badago sistemaren aurkako diskurtsoetan, oso inte-gratuak baitaude sisteman, aldi berean keynesianismoa aldarri-katzen dutenean, ongizate esta-tua mantentzearen alde baitau-de. Biak ezin dira pakete berean saldu, bata ala bestea. Nik libu-ruan diodana da galderak egiten jarraitu behar dugula, eta, eral-datzailea izatea nahi duen mu-gimendu bati, eztabaida librea eskatzen diot, eta eztabaida li-brerako arazoak ditugula irudi-tzen zait.

Zer jenderekin egon zinen Ser-bian?

Enpresa autoeratuak desmante-latzen ari dira Serbian, Titoren garaiko sistema desegiten ari di-ra pribatizazioen bidez edo bes-terik gabe ixten. Eta prozesu ho-rretan kalean geratutako langile



Argazkiak: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

multzoak hasi dira elkartzen eta irtenbideak aztertzen eta nazio-arteko jardunaldi batzuk antola-tzera iritsi ziren. Ezker ofiziala sisteman txertatuta ikusten du-ten ezkerreko sindikalistak zi-ren antolatzaile. Serbia, Kroazia, Alemania eta Bosniako sindika-listak ari ziren parte hartzen. Oso debate leku irekia zen. Mondragon esperientziari bu-ruzko begiratu kritiko bat nahi zuten eta deitu zidaten.

Goazen munduaren beste pun-ta batera, Ekuadorrera. Jato-rrizko hizkuntzen alde ari di-ren elkarte txikiekin egiten duzue lan, baina oraingoa

Hizkuntza Eskubideen Lege Proiektua idazten laguntzera joan zinen.

Garabideren apustua hizkuntza-ren sua berpiztu nahian dabil-tzan elkarrekin lan egitea da, baina gure trukeetan parte har-tutako pertsona batek parla-mentuan lan egiten du, aukera hori ikusi zuen eta laguntza es-katu zigun. Kontraesana ere ba-da legez ezer jakin gabe eta le-ge kontzeptua bera ere hain arrotza egiten zaidalarik egiteko horretan sartzea, baina denetik egin behar. Aukera historikoa zen Ekuadorren. Oraintxe dago gaia puri-purian. Alegazioak egiteko epea zabaldu dute.

Liburua irakurrita ohartzen da bat zein konplexua den hiz-kuntza gutxituen auzia he-rrialde horietan.

Gurea askoz ere sinpleagoa da, jatorrizko hizkuntza bakarra du-gulako eta gutxi gorabehera na-zio bakar bat. Eztabaida politi-koak ere gardenagoak dira hemen, azken batean Estatua-ren barruan eroso egokitu ala burujabetza lortzea baitira au-kerak. Baina Ekuadorren 13 hiz-kuntza jatorrizko daude eta Bo-livian 30, bi adibide jartzearen. Beren historia ere gurea baino traumatikoagoa da eta kontrae-san nabarmenak dituzte ezke-rraren eta mugimendu sozialen

«Euskal ezkerrean eztabaida intelektual interesgarriak ez dut sumatzen. Orain hamabost egun egon nintzen Brasilen eta eztabaida askoz ere sakonagoak dituzte abian, edo baita Serbian bertan ere ezkerreko sindikalisten artean. Hemen kontrola sentitzen dut, eta gai batzuen inguruan ‘rodilloa’ nola pasatzen duten»



artean. Konplexutasun horren barruan hizkuntza biziberritzen dugun esperientziatxo eskaintzea da gure egitekoa.

Badirudi Garabidetik igaro diren eragileak oso garrantzitsuak direla borroka horretan. Horrek erakusten du hango hizkuntzen egoera zein gorria den. Gure inpaktua hain handia bada, oso gaizki dauden seinale.

Eragile edo lider horietako batzuek behin eta berriz aitor-tzen dute Euskal Herrian bizitza aldatu zitzaiela. Hizkuntza baten gainbeherari aurre egitea posible dela deskribitu zuten eta biziberritzeko giltzarriak zein diren ere bai. Gureak ez die kopiatzeko balio, baina inspiratzeko bai.

«Kopiatu» eta «inspiratu» aditzak aipatu dituzu. Badaude gureetatik kalkatu dituzten egitasmoak ere, Kafe Antzokia-rena, esate baterako, edo han bertan Garabide txiki bat sortzeko aukera. Trukean etorritako batek Bilbo-ko Kafe Antzokia ikusi eta sekulako *flash*-a izan zuen. Quitoko erdigune historikoan etxe zahar bat eskuratu eta goitik behera berritzen ari dira. Antzokia, osatua, kitxuara erakusteko zentroa eta beste hainbat zerbitzu izango ditu. Antzeko zerbait gertatuko zitzaiela pentsatu izan dut aspaldi hartan Xabier Kintanari eta beste zenbaiti Israelera joan eta euskaltegien ideia ekarri zutenean.

Deigarriak dira gobernuz kanpoko erakundeei egiten dizkion kritikak ere. Garabidek egiten duen lanarekin kontrajartzeko egingo dituzu behar-bada? Gobernuz kanpoko erakundeek historian gauza estimagarri asko dago, baina beren jardunari ere zor zaio begirada kritiko bat. Nahiz eta hitzez planteamonde asistentzialistak gaingitu egin behar direla dioten, uste dut bekatu horretan erortzen jarraitzen dutela eta dinamika dependenteak sortzen dituztela. Kooperazioak, ordea, elkarrekin



lan egitea ekartzen du, haien esperientziak gureekin trukatu eta jakintza partekatzea. Egia da truke asimetrikoak izaten direla, baina trukeak dira. Herrialde baten kooperazioak berak burututako prozesuak partekatu behar lituzke eta bigarren mailakoa izan behar litzateke dirua edo laguntza ematea.

Tarteka, gutxitan bada ere, arlo ekonomikoan sartzen zara. Bolivian, esaterako, 170.000 meatzari daude kooperatibista direnak. Ekonomia mailako aholkularitza, hezkuntza teknikoa eta inbertsioak eskatzen zituzten. Kasu horietan bitartekaritza egitea da gure lana. Etxera itzul-

tzen naizenean eskabidearen berri ematen dut behar den lekuan eta badakit harremanetan jartzen direla.

Evo Morales Euskal Herrira ekartzeko planak ere egin zenituzten. Egia esan, bitan aztertu dugu Evo Euskal Herrira ekartzeko aukera eta batean harremanak egin genituen Jaurlaritzakoekin. Horretan ere bitartekari lana da gurea, ez besterik. Bolivian kitxua, aimara eta guarania hizkuntza handiak dira eta Euskal Herrian hizkuntza berreskuratzeke egin dugun ahaleginak interes handia du haientzat, baina baita kooperatibek ere. Bi erakarren foku oso indartsu dira.

Kooperatiben Institutuko arduradun izan nintzen hamar urtez eta badakit zer-nolako itzala duen gaiak munduan.

Badago liburuan atal eder bat «Zotin irentsiak» deitzen duzuna. Bileran zaudete eta alkate batek esaten du kitxuaz «Kichwa karenki» (kitxua naiz) eta negarrak galarazten dio hitz egiten jarraitzea. Zer min zahar, zer oroitzapen ditugu gure baitan hizkuntzaren gaiak hain barruan ukitzeko? Polita da ikustea zein azkar konektatzen dugun emozio horrekin. Ohartzen zara horrelako egoera batean gu ere emozionatu egiten garela. Zibilizazio alde-tik hain urrunak zaizkigun le-

kuetan horrelako gauza batean elkar ulertzen dugula ikustea ederra da. Hor sortzen den konplizitatea da egiten dugun trukearen gasolina. Hizkuntza oso gauza intimoa da eta haurtzaroarekin lotua dago. Alkate hori “Ni kitxua naiz” esanez hastean, bere amarekin gogoratuko zen edo auskalo, urte askotan estalitako zerbaitekin. Eta kolpetik katarsi bat sortzen da. Zergatik?

Boliviari dagokionez, UNIBOL unibertsitateak dirudi proiekturik interesgarriena. Oraingoz hiru fakultate ditu unibertsitateak, bakoitza hizkuntza bati lotua, kitxua, aimara eta guarania alegia. Ikusi behar dena da ea unibertsitate indigena bezala lortzen duten ikasketak beren hizkuntzan egitea. Aurrez aurre lan titanikoa dute orain, terminologia sortzeko baitute eta irakasleak prestatu behar baitituzte. Hasita daude. Garabidek sorreratik hartu du parte. Proiektuak neu izugarri harritu ninduen, Boliviari buruz genuen pertzepzioa ez zelako hain ona.

Bost egonaldiak labor bada ere aipatzeko, Kurdistanen gerra eremutik oso kilometro gutxira ibili zinen. Garabideren lan egiteko modua prozesu iraunkorretan parte hartzea izaten da eta hau esperientzia puntuala izan zen. Errefuxiatuen kanpalekuetan lan egitea ez da gure programatan sartzen, kanpaleku bat definituz behin-behinekoa delako. Baina gurekin formatzen ibilitako Kurdistango ordezkariak behin eta berriz eskatu zigun eta joan nintzen. Siriako gerratik etorritako errefuxiatuak dira. Jarraitzeko asmoa dugu, baina indarrak ez ditugu bideratuko Turkia eta Siriaren arteko mugan dauden kanpalekuetara, baizik eta kurduez abiatu nahi dituzten eskoletan egingo dugu lan. Turkiaren mende dagoen Kurdistango zatian udalek autonomia pixka bat izan badute eta hauek ari dira hizkuntza mailako proiektua bultzatzen. Kurdistanen konplizitate linguistikoz eta kulturalaz aparte badago konplizitate politiko bat ere.

GAUR8



ireki gure leihoo

IKUSMIRA



BEGIRA DEZAGUN GORA, BEHERA ETA ALBOETARA

Pankartetan hoztu zaizkigu eskuak. Sabelean makil batekin kolpe bat eman baligute bezala pasatu dugu astea, erdi tente erdi uzkurtuta. Datuak irentsi ditugu, ulertezina ulertu nahi duenaren antsiaz, eta ia film propioa egina genuenean jakin dugu Gabrielak eta Aliciak badutela zaintzen eta maitatzen dituen magalik. Aliciak bazuen besoetan gozo hartzen zuen aitona bat, bizikletan ibiltzen irakatsiko ziola agintzen zion izeba bat, ilea orrazten zion amona.

Gasteizko Askatasuna kaleko hamaugarrenen ireki da izugarrikeriaren leihoa, imajinatu daitezkeen bortizkeria klase guztiak ezkutatzen dituen. Hautsitako kristalari begira egiten du hausnarketa herritarrak espaloian plantatu eta gora begira. Hara igo bazen, alaba txikia besoetan, toki seguru irudituko zitzaion. Begira dezagun gora, behera eta alboetara; jendarteak segitu beharko du toki seguruak eta harreman sanoak bultzatzen, parez parekoak. Munstroak ahultzen eta printzesak indartzen, batzuk besteen pare egon arte.

amagoia.mujika@gaur8.info

Hiru

Mirari Martiarena

Hirukote ezagunak egon dira historian: ipuinetan, marrazki bizidunetan, maitasun istorioetan... Interneten begira aritu naiz, eta azaldu zaizkit beste adibide batzuk ere. Musikariak: Los Panchos. Erregeak: Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Txiste kontalaria: Kike, Joxe Ramon eta Gillermo. Geometria klaseetan esan ziguten triangelu mota desberdinak zeudela: aldekidea, isoszelea, eskalenoa, zuzena, zorrotza eta kamutsa. Beste triangelu mota batzuk ere badaudela ikasi nuen: Bermudetako triangelua, elikaduraren triangelua edo kazetaritzako iraulitako triangelua. Eta badago katekesian eta mezetan hainbeste aipatutako Hirutasun Santua ahaztu duenik?

Bada nik lehen pertsonan bizi dudana hirutasun bat; 1992ko urriaz geroztik dudana. Hiru ahizpena. Hiruna urteko adin tartea dugu batetik bestera. Nik 29 urte ditut, Arantzazuk 26 eta Nereak 23. Gazteenak urteak betetzen dituen egunean zahartzen naiz, oraindik iruditzen baitzait nik ditudala 23 urte.

Ahizpa zaharrena izatea egokitu zait. Nahi gabe ere eredu izatea. Nahi gabe ama papera hartzea. Ardura asko, onerako eta txarrerako. Inork eman gabe hartu izan ditudan gehienez. Atzera begira jarrita barre egiten dugu “konjuntatuta” janzen gintuzten egunekin. Zaharrenetik gazteenara herentziaz pasatako arropak. Ondorioz, kalkulatu gazteenak zenbat urte pasa

zituena berdina jantzita. Elkarri lagundu izan diogu eskolako lanak egiten. Sesioak ere mundialak izan ohi ziren, normalean bi baten kontra. Edo bi bat zirikatuz haserrarazteko.

Hiru neska baserri batean. Horrek ere eman dezake beste zutabe baterako. Gurasoek gazteena neska izango zela esan zuten inguruan izan zen “izorra daitezela” esan zuenik. Ez gara historiako liburuetan azalduko “Pikoketako hiru ahizpak” izenburuarekin. Ez dakit zer motatako triangelu bezala definituko gintuzketen. Ahizpak gara, lagunak, konplizeak. Hirutasun Santua zer den ez zitzaidan oso argi geratu, baina hirutasuna zer den badakit. Hirutasuna gu gara. •

Askatasunaren kontrako talka

Koldo Sagasti

Aliciaeren buruak Askatasuna kaleko galtzadarriak kolpatu ditu. Hamazazpi hilabete baino ez zituen, bizitza zertarako den jakitera iritsi gabea zen, beraz. Bihozgabeko gizon batek bortxatu eta leihotik behera jaurti du bere gorputz txiki babesgabea. Gasteizko gizarte asaldatuta dago, ikaratuta, eta kalean erakutsi du bere sumina. Zenbaitek eroaldian baino ezin izan du bilatu horrelako barrabaskeria batentzako azalpena, gaixotasunak hiltzailearen ankerkeria zurituko balu bezala. Baina munstro hori ez da gaixoa, gizarte gaixo baten emaitza baizik. Eta Aliciarena ez da gertaera isolatua, berea tantakako genozidio isil baten azken kapitulua baino ez dugu. Horrela-

koak emakumeen aurkako bortizkeria modu isil eta sotilean onartzen duen gizarte testuinguru batean baino ezin daitezke gertatu. Oharkabea ohikotzat ditugun jarrera askok elikatzen dute jazarpenarako ongarriztatutako eremu hori.

Lan elkarrizketa batean emakume bati seme-alabarik izateko asmorik ote duen galdetzen diotenean, kasu, zartakoa ematen ari zaizkio Alicia txikiari. ETBko albisategietan Hondarribiko alarde matxistari “tradizionala” deitzen diotenean ere, zilegitasuna ematen diote populazioaren erdia alde batera uzten duen ospakizunari, eta baztertutako emakumeei astindua ematen. Halaber, ordezkari politiko batek

terrorismo patriarkalari “bortizkeria domestikoa” deitzen diotenean, gutxietsi egiten du, etxeko atetik barrurako arazoa baltitz bezala, etxe barruan konpondu beharrekoa alegia. Jarduera politikora dedikatzen den emakumea bere itxura edota orrazkeragatik kritikatzeko duenak ere emakume guztiak iraintzen ditu. Edota, beldurraren beldurrez, neskek ordu txikietan kale zehatz batzuk saihesten dituztenean guztion mugitzeko askatasuna da kolokan dagoena... Eguneroko gertaerak dira, oharkabea pasatzen zaizkigunak. Baina horrela jokatzen dugun bakoitzean munstroa elikatzen jarraituko dugu, eta Aliciaren kaskezurrak behin eta berriaz egingo du talka Askatasunaren kontra. •

infraganti MAITE LEANIZBARRUTIA

San Blas opilek betetzen dituzte egunotan labeak. Elorrión, amama eta amari ikasitakoarekin lanbidea osatu duen Maite Leanizbarrutiak mahai gainean ipini dizkio GAUR8ri sasoiko opil preziatuak eta kontatu du ordu txikietan lanean ibili beharra gogorra izan arren ondo egindako jakiek, etxeko erara eta kalitatezko osagaiekin, gogobetetzen dutela.



Maite Leanizbarrutia, Leaniz okindegiko labearen ondoan. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Kandelario eta San Blas egunak, Santa Ageda, inauteriak... Gabonen osteko geldiunea bukatu da eta ate joka dugun asteko agenda pilatzen hasia da tradizioz beteriko hitzorduekin. Neguaren gordinean, katarro gogorenenean eraginpean edo sutondoko egur errearen usai artean, kandelen, argizarien, kordioien, tostaden eta opil berezien garaian bete-betea sartzeko garaian gaude. Santa Ageda bezperako makilakaden erritmoek egunotako soinu banda osatzen dute gure imajinarioan. Horregatik, negu epel arraro hau da jokoz kanpo dagoena (aurten apenas zuritu ditu gai-

lurrak), sukaldeko usain gozoak oroitzapenen zirrikituen artean heltzen zaizkigu-eta egunotan. Tradizio giro horretan murgilduta Elorriorantz abiatu da GAUR8, etxean ikusi eta ikasitakoan oinarri ofizioa aukeratu duen emakume batekin hitz egitera. Maite Leanizbarrutia du izena eta baserrian bertan daukan labearen ondoan aurkitu dugu jo eta fuego. Mauka laburretan, lanbidean hogeituroko eskarmentua daukan elorriarrek kontatu digu zertan jarduten duen, noiztik eta nola aritzen den opilgintzan. Hala, tradizioa, oroitzapenak eta lana uztartzen dituen ibilbidea osatu du. Horregatik sortu zaigu galdera: soilik lanbidea da berea? Ez al du beste zeozer gordetzen?

Ogi asko dago merkatuan, eta asko gozoak, baina badakigu jaten dugun hori zerekin egina dagoen? Leanizbarrutiarekin izandako solasalditik irtengo dira erantzunak.

Elorriotik Berrizerako bidean dago Leaniz izeneko okindegia, Maite Leanizbarrutiaren ogien eta gozokien etxea. Bertan dauka labeak eta gune txiki bat ere badu produktuok saltzeko, baina gutxi batzuk dira bertaratzeko direnak, ekoizten duen gehiena inguruko dendetan saltzen baitu. Gehienbat asteburuan hurbiltzen dira erosleak baserrira, eta bakarren bat aste barruan.

«Hemen bizi gara eta hemen-txe bertan ditugu labeak», azaldu du Maitek, dituzten azpiegituraren inguruan. Dioenez, duela hogeituro urte hasi ziren lanbidean. Hurrengo maiatzarekin batera etorriko da 21. urtemuga.

OGIA, OGIBIDE

Ibilbide berria hastearen erabakia hartu zuen garaian, Leanizbarrutia lanik gabe zegoen. Landa garapeneko ikastaro bat egin zuen baserriko ogia egiten has-teko, eta gizonak planteatu omen zion negozioa abiatzea. Galdera entzun eta «zergatik ez?» pentsatu zuen Maitek. Ikastaroan ikaslea zen, baina ez zen inondik ere berria betebeharrorretan. «Baserrian labe txikitxo bat geneukan, beti egin izan dugu ogia etxean, lehenago erromatarra esaten zitzaion labe batean», azaldu du.

Ogiak, pastelak eta opilak Leaniz okindegian prestatzen dira eta handik saltoki ezberdinetara doaz. Erosleen begien aurrean jartzen dituzte Durangaldeko hainbat dendetan, Eroskiren hipermerkatuan eta egunkariak eta gainontzekoak saltzen dituzten dendatxoetan Zaldibarren eta Elorrión.

Leanizen produktuek hainbat sari eskuratu dituzte. Gozokien artean euskal pastela da duten «produktu izarra», Maiteren arabera. Ogi ezberdinak prestatzen dituzte, barra formakoak eta baserriko ogi tipikoak, baita euskal pastela, sagar tarta eta egunotatik aurrera falta ezin diren San Blas opilak.

Urteetan hartutako eskarmentuaren ondorioz neurria hartuta badute ere, buruz ezin du zehaztu zenbat opil ore sartuko dituzten labean. San Blas egun handia heldu zain, kontua galduta du, baina «mordo bat» egiten dituzte aurreko egunetan, eta, Abadiñoko azokarako, «esajerazio bat». Gauza da dendetak saltzeko aukera guztiak izaten dituztela; adibide modura komentatu du inoiz gertatu zaiela eguraldi txarrarekin «kontuz ibiltzeko» gutxiago egitea pentsatzea, eta, azkenean, salmentak pentsatu baino hobeto joatea.

Bi tamainako opilak egiten dituzte, biak ere gainetik zuriak eta «San Blas» hitzak idatzita dituztenak. Txikienak 4,10 euro balio ditu, eta, handiak, 4,5 euro Leanizbarrutiarren saltokian.

Opilen arrakastan ez dago misteriorik, Maiteren hitzetan. Dioenez, garai honetako opilen tradizioa oso zabaldua dago Durangaldean eta ez da ez ohi-tura berria, txikitatik ikusi baitituzte opilak etxeko sukaldean data hauetan. Oso gertu, Eibarren, kontatzen dute garai batean anis usaina nagusitzen zela kaleetan San Blas eguna hurbiltzean, etxe gehienetan egiten baitziren opilak.

Errezeta ere erraz asko aurki daiteke Interneten. Galirina, azukrea, txerri gantza, anis esentzia, glas azukrea eta legamia dira osagai nagusiak.

AMAMAREN ETA AMAREN ERARA

Ez dago beste munduko sekreturik, baina garrantzi handia ematen diote Leaniz okindegian tradizioa jarraitzeari, eta etxeko ore preziatua prestatzeko era gorde dute. Egurrezko labea eta kalitatezko osagaiak erabiltzea ere ezinbestekoa da. Maitek dioenez, labean sartzen duzunaren parekoa izaten da emaitza, eta ezin da ahaztu horrek ahosabaian uzten duen zaporea.

«Akordatzeko naiz San Blas sa-soian antzerako opilak egiten genituela etxerako. Orduko errezeta batekin gabiltza orain, lagun batek emanda», gogoratu du Leanizbarrutiak. Dioenez, «misterio guztia» amama eta

amarengandik ikasitakoa jarraitzean datza, eurek egiten zuten «erara» egiten baitituzte opilak. «Azken batean torta bat da, baina erroskillak baino askoz ere urtsuagoak dira opilak, eta, nire ustez, horrexegatik dute arrakasta handiagoa. Jendea de-seatzen egoten da, San Blas egunaren aurreko asteetan hasten dira jada galdetzen opilak egiten noiz hasiko garen», azaldu du elorriarrak.

Izan ere, gogoratzen du lehen Abadiñoko azokan erroskillak izaten zirela protagonista, baina, aldiz, azken urteotan «erroskillak baino arinago gosaltzen da honelako torta batekin». Onartu duenez, halere, ez da le-nizbarrutiatarrek egunotan hartzen duten ohiko gosaria, labearen ondoan ordu txikietatik lanean egon ostean, pintxotxo bat nahiago dute-eta. «Usainarekin bete egiten zara!», dio.

GAUERDIKO LAN MARDULA

Egia esan, Maite Leanizbarrutia labearen ondoan aurkitu genuen eta bertan utzi genuen, eta ez ziren gaueko ordu txikiak. Horrek azalarazten ditu ogi eta opil gozoen atzean ezkutatzen diren lanordu ugariak. Ez du ezkutatzen Maitek ordutegia dela aukeratu duen lanbidearen alderik ilunena, are gehiago ama izanik. Azaltzen duenez, aste barruan, normalean, 04.00ak aldera altxatzen dira, 03.00etan barikuetan eta 02.30ean zapatu eta domeketan, asteburuan piltzen baita lan mardulena. Etxetik kanpo lan egiten duen senarraren eta ahizparen laguntza du Maitek, eta ingurukoek ere botatzen diete eskua tarteka.

Urte luzez goizaldean lanean hastea gogorra bada, zelan deskribatu lana eta familia uztartzeko saiakera? Alde horretatik «zortea» izan du Maitek, onartzen duenez. Izan ere, alabak bizkiek 8 urte zituzten lanean hasi zenerako. Ez du pentsatu ere egin nahi haur txikiagoekin zelan izango zen!

Ez da, dena den, lanbidearen alderik gogorrena Maiterentzat. Azaltzen duenez, lanbidea gustuko du eta gauzak ondo egitearen asetasuna da egunero jarrai-



Maitek ez dakit esaten zehatz zenbat opil egiten dituen egun hauetan. Ordu txikitan hasten da lanean.

Luis JAUREGALTZO | ARGAZKI PRESS



Abadiñoko San Blas azoka ate joka da dagoeneko.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Durangeldean ospe handia dute San Blas opilek. Eibarren ere izugarri preziatuak dira. Diotenez, Eibarren anis usainez betetzen ziren garai batean kaleak San Blasak hurbildu ahala

Maite Leanizbarrutiaren etxean opilak ez dira kontu berria. Txikitan amamari eta amari ikasitakoak zerikusi handia izan zuen Maiterentzat lanbidea aukeratzeko orduan

tzera bultzatzen duena. «Niri beharra asko gustatzen zait, betetasun handia ematen dit», azaldu du Maitek, hainbeste urteren ondoren ere oraindik hain goiz altxatzera guztiz ohitu barik dela onartzen duen arren.

Urte hauetan guztietan hainbat sari jaso ditu, eta horrek ere laguntzen dute egunerokoan. «Zure lana baloratuta dagoela, aitortzen dutela ikustea suposatzen du lanbidea gustuko duen pertsona batentzako». Dioenez, umetatik ibili da amamaren eta amaren inguruan. Akorduan dauka haiei ikusitako mugimendu eta prozesuak, umea zela jasotakoak. «Nik zer esango dizut ba, umetatik ibili naiz ho-

netan! Akordatzan naiz amamarekin lehenengo eta amarekin beranduago ikasitakoa, eta oroitzen onak ditut, ostentzean ez nuke orain egiten dudana egingo!», nabarmentzen du.

Abadiñoko azoka gertu dela eta, komentatzen du merkatu bakoitzak xarma berezia duela, «onak dira guztiak», baina Abadiñokoa eta Elorriokoa dituela berak «kutunenak». Gernikakoa, Bilboko San Tomas egunekoa, Ermukoa eta Eibarkoa ere aipatu ditu hitzordu onenen artean. Orain, baina, labera itzuli behar du, San Blas egunerako gero eta gutxiago falta da eta... •

Nerea Goti

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE MARIA LARA. FONDO FAMILIA LARA

PIO BAROJA: BIDASOAKO ERREPUBLIKA ALDARRIKATZEN ZUEN IDAZLE UMIL HURA

Nekazaria eta umila. Hala definitzen zuen bere burua Pio Baroja idazleak. Herrialde umil batekoa zela zioen gainera, "Bidasoa herrialdekoa". Errepublika zalea zen, Bidasoako Errepublikaren aldekoa, berak zioen bezala: «Sin moscas, frailes ni carabineros». Pio Baroja da argazkikoa, 1955. urtean, Beran. Urtebete geroago hil zen, Madrilen. Argazkia, berriz, Jose Maria Larak egindakoa da. Gazte-gaztetatik familiako harategietan egin zuen lan Larak; bost establezimendu zituzten Bilbon. Oso zezenzalea bera, Manollete edo Pepe Luis Sanchez bezalako toreroekin ibili zen gerraostean. Garai haietan zabaldu zuen argazkilaritzarekin lotutako bere lehenengo negozioa, Madrilen, "Fotocolor Lara" izenpean. Berak egindako argazkiak komertzializatu zituen, "Life" edo "Paris Match" bezalako aldizkari ezagunekin elkarlanean, besteak beste.